

Kaxka gogorra

Egintza bakarreko txotxongillo jostallua

Gai berean Toribio Alzaga'k bigarren aldiz tajutua

1930

Banaketa

Andre Mañaxi

Sendalaria

Trinpolla

Mikeletia

Egintza bakarra

Lenengo irudia

I

Andre Mañaxi bereala Sendagilea

(Andre Mañaxi gela erratz batekin garbitzen ari da. Aldi berean abestutzen du)

Andre Mañaxi: Alpraketak autsi eta

jostorratzik ez

Erniyon gelditu nitzan

buruko minez

(Izketan)

Buruko miñez, kaskagogor orren gatik ¡Buruko miñez! ¡Ai! ¡ai! ¡ai!

(Sendagillea sartzen da)

Sendagillea: ¡Zer da orrenbeste ai! ai!´rekin. Nik beintzat uste nuen ari ziñala:

(Abestuaz)

¡Ai, ai, ai, mutilla

txapela gorriya!

(Izketan)

Andre Mañaxi: ¿Txapel gorriya?¡Egun gorriyak daramazkit nik, eta gabak gorriyaguak!

Sendagillea: ¿Eta guziya buru orren gatik?

Andre Mañaxi: Buru orren gatik, bai jauna, kaska-gogor orrengatik

Sendagillea: ¡Eta noizko dira sendagilleak?

Andre Mañaxi: Gorputzak kanpo-santura eraman biar diranerako

Sendagillea: Guazen, guazen. Egiz eta zuzen nere galdeerai erantzun bear diezu

Andre Mañaxi: Bai jauna, bai.

Sendagillea: ¿Zuk buru orretan zer arkitzen dezu?

Andre Mañaxi:¿Buru onetan?

Sendagillea: Bai

Andre Mañaxi: ¿Zer arkitzen dedan?

Sendagillea: Bai

Andre Mañaxi: ¿Zer arkituko det? ¡Illia!

Sendagillea: Besterik arkitzen ez badezu, gaitzerdi. Baña ez da ori nik jakin nai nuena.¿Zuk buruan ez al dezu entzuten alako zarata, barbulla burrunbatsu bat?

Andre Mañaxi: Ezta batere

Sendagillea: ¿Eta kanpoko otsak ondo entzuten al dituzu?

Andre Mañaxi: Oso ederki

Sendagillea: ¿Eta eskillak, kanpaiak, ondo entzuten dituzu?

Andre Mañaxi: Eguerdiko amabiak ez ditu iñork nik baño lenago entzuten

Sendagillea: Ia ba: ¿Pasai San Pedro elizako kanpaiak nola jotzen du?

Andre Mañaxi: Beti-mixeri, Beti-mixeri

Sendagillea: ¿Eta San Juan´guak?

Andre Mañaxi: Ni ere bai, ni ere bai

Sendagillea: ¿Eta Altzakuak?

Andre Mañaxi: Izan ta izango. Izan ta izango

Sendagillea: ¿Lezo ´kuak?

Andre Mañaxi: Or konpon – Or konpon – Or konpon

Sendagillea: ¿Eta Antxo ´kuak?

Andre Mañaxi: Bakallau xaltxa, xaltxa, xaltxa, Bakallau xaltxa, xaltxa, xaltxa, Bakallau xaltxa, xaltxa, xaltxa

(Ixilaraziaz)

Sendagillea: E! Ixo! Naikoa da! Ikusten danez ortatik ez da ezer. Beste zerbait somatzen ote degun argi bat ekarri bear didazu.

Andre Mañaxi: Beriala jauna

(Andre Mañaxi juaten da)

Sendagillea: Kaska-gogorra uste det esan duela. Zer izan liteken ezin asmatu det. Ia azkenean kaska-gogor ori kinkiñazoka bigundu biar ote diogun.

(Andre Mañaxi zutargi, kandelero itzali batekin etortzen da)

Andre Mañaxi: Ona emen argiya

Sendagillea: ¿Nun?

Andre Mañaxi: Emen

Sendagillea: Ori ez da argiya. Ori illuna baño illunagua da.

Andre Mañaxi: Bai, baña, poxpolo batekin pixtu ezkeru,...

Sendagillea: ¿Eta non dituzu poxpoluak?

Andre Mañaxi: Beorren zakelian...

Sendagillea: Nik zakelian poxpoluak izan banitu, ez nizun zuri argirik eskatuko.

Andre Mañaxi: Orduan sukaldeko krisallua ekarriko diot.

Sendagillea: Ekarri zazu, nai badezu, Santa Mai´ko armiarma aundiya.

Andre Mañaxi: ¿Armiarma?

Sendagillea: ¿Ez al dakizu ba, *araña* euskeraz armiarma deitzen dala?

Andre Mañaxi: Ala da izan ere.

Sendagillea: Bai noski.

Andre Mañaxi: Krisallua beriala ekarriko diot.

(Andre Mañaxi juaten da)

Sendagillea: Ekarri zazu, bai. Guziyen bearrian izango gerala iduritzen zait. Poxpoloik ez degun ezkerro, gauza geroago ta ilunago ikusten det. ¿Argi izpi bat ez ote zaigu nonbaitetik azalduko? ¡Ara! Orain azaltzen dala derizkiot.

(Andre Mañaxi krisallu pixtuarekin etortzen da)

Andre Mañaxi: Ona emen. Ez du orain esango argi illuna dala.

Sendagillea: Ez orixe. Argi ederra ekarri dezu. Ekatzu ba, ta ikusi zagun

(Andre Mañaxi´ri krisallua artu ta burura begiratzten dio)

Ez da ezer agiri, baña, baña...

(Krisallua A. Mañaxi´ri ematen dio)

Andre Mañaxi: Baña ¿zer?

(Sendagilleak A. Mañaxi buruan jotzen du)

¡Ai! ¡ai! ¡ai!

Sendagillea: Zuk, buruan dezu...

Andre Mañaxi: ¿Zer det nik buruan?

Sendagillea: Serrautsa

Andre Mañaxi: ¿Serrautsa? Obe nuke ba

Sendagillea: Bai, zure gaitza da: Serrautsiz zerebralis emerengis kolapsus

Andre Mañaxi: ¿Zer da gero ori?

Sendagillea: ¿Ez al dakizu zer dan: Serrautsis zerebralis emerengis kolapsus?

Andre Mañaxi: Nik, ez jauna

Sendagillea: Nik ere ez ba

Andre Mañaxi: Orduan biyak poto egin degu.

Sendagillea: Baña, ba ezpada ere mingaña ikusi biar dizut. Tira, mingaña atera zazu

Andre Mañaxi: ¡Miau! Zer atera biar det mingaña

Sendagillea: Baña, emakumia...

Andre Mañaxi: Berorrek, bai, buruan serrautsa izan biar duela

Sendagillea: ¿E?

Andre Mañaxi: Nik ez det ezer mingañian ta ez buruan, beorri mingaña erakusten asteko

Sendagillea: ¿Baña zorrek aistian esan ez didazu, kaskagorra dezula?

Andre Mañaxi: Nik ez det kaskagorrik

Sendagillea: ¿Nola?

Andre Mañaxi: Kaskagorra nere senarrak du

Sendagillea: Ori, len ere, esan zenezakean

Andre Mañaxi: Eta nere senarraren kaskagorrak irakiten, prejitzen nauka

Sendagillea: ¿Zer ba? ¿Itxasuan urez asetzen al da?

Andre Mañaxi: Bai jauna; itxasuan urez eta legorrian sagardo eta ardoz

Sendagillea: Ez da beaz aguaruba

Andre Mañaxi: Ez jauna, ez. Eta orrela dagonian jartzen zayo ...

Sendagillea: Badakit. Jartzen zaio sudurrian karranpa

Andre Mañaxi: Ta orduan ikaragarritzko ixkanbillak sortzen dizkit

Sendagillea: ¿Eta orrelakuetan... zera... axkure ere egingo dizu noski?

Andre Mañaxi: Bein baño geyagotan

Sendagillea: Bada zure senarrak duena da: “zurrutipoli mozkorrontzis irakundus”

Andre Mañaxi: ¿Eta nik zer egin nezake?

Sendagillea: ¿Zuk? Orrelako kankarrakin etorri, ta... zera... axkure egin nairik asten zaizunian; zuk eman biar diozu: “estraktus makillorun per omnia sekula sekulorun”

Andre Mañaxi: ¿Eta nola da ori?

Sendagillea: Beriala esango dizut.. Erratz bat aixtiyan emen zenerabilen...

Andre Mañaxi: Ementxen daukat

Sendagillea: Ekatzu ba

(Andre Mañaxi 'k erratza Sendagilleari ematen dio)

Ar zazu erratza onela ta... bat, bi, iru, lau kaxka, kaxka, kaxka, ebañ ebañ egin zazu

(Sendalariak erratzarekin Mañaxi buruan joyzen du)

Andre Mañaxi: Ai! ai! ai!

Sendagillea: Ikusi dezun bezela oso errexa da. Erratza onela artu ta... bat, bi, iru, lau kaxka, kaxka, kaxka...

(Sendagilleak Andre Mañaxi berriro jotzen du)

Andre Mañaxi: Ai! ai! ai! – Ikasi detala uste det. Ia bekar erratza

(Sendagilleak erratza Mañaxi 'ri ematen dio)

Sendagillea: Oso errexa da. Oso errexa da.

Andre Mañaxi: Bai jauna, bai. Ara; bat, bi, ...

Sendagillea: Ori da

Andre Mañaxi: Iru, lau; kaxka, kaxka kaxka

(Mañaxi 'k Sendagillea jotzen du)

Sendagillea: Ni, ez; ni, ez. Eta gañera ez dezu ondo egin. Begira zazu obeto

(Sendagilleak erratza artzen du)

Ara: onla. Bat, bi, iru, lau. Kaxka, kaxka, kaxka

(Mañaxi joaz)

Andre Mañaxi: Ai! ai! ai! – Orain ederki ikasi det. Ikusiko du zeñen egoki egiten dedan

(Mañaxi 'k erratza artzen du)

Sendagillea: Bai, baña ba ezpada ere, beste aldera begira jarri zaite, Ara begira

(Sendagilleari bizkarra emanaz)

Andre Mañaxi: ¿Onela, e?

Sendagillea: Orrelaxe

Andre Mañaxi: Orain ikusiko du ba. Ara: bat, bi iru, lau ...

Sendagillea: Jo gogor orain

(Mañaxi 'k bat batetan jira egin eta sendalaria jotzen du)

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka.

Sendagillea: Ez, ori ez, ori ez. Ikusten nago, orrela baguaz geyegi ikasiko dezula ta banua, banua emendik

Andre Mañaxi: Nai duen bezela

Sendagillea: Eta, badakizu; senarra etortzen bada “Zurrutipoli mozkorrontzis irakundus” zuk eman “estraktus makillorun, per omnia sekula sekulorun”

(Sendagilleak juatera egiten du)

Andre Mañaxi: Bai jauna, onelaxe; kaxka, kaxka, kaxka

(Atzetik sendagilea erratzarekin buruan jotzen du)

Sendagillea: Neri ez, neri ez

(Biyak juaten dira)

Bigarren irudia

II

Trinpolla. Gero Andre Mañaxi. Azkenean Sendagilea ta txakurra

(Trinpolla sartzen: Mokollo, baña bere biziko mokollo bat dakar. Bere arrekin abestutzen du)

Trinpolla: Anton bat eta Anton bi
 Anton putzura erori
 eran zituben trago bi
 orduan etzan egarri

(Izketan)

Ni bai. Edan eta edan eta geruago ta egarri geyago. ¡Au gizonaren sasoya! Ez nitzake ni aseko ez baxo xagarduak uztutzen ez nere atsuari belarriondokuak ematen.

Nere atsua orain ere, beti bezela kanpuan. Ez da buruan sartuko diyonik, etxian egon biar duela senarrari etortzian oñetakuak kentzeko. Emaztearen egin bearrak ezin ikasi ditu. Erakutsiko dizkat ba nik. Azkar gero

Baña dana dala, neronek kendu biarko. Kenduko ditut bai; baña nere atsuari ere kenduko dizkiot belarri ertzeko autsak ¡A zer jipoya artu biar didan!

Lenbizi eskuikoa aterako det. Uu...up.

(Oñetako bat eskuetan artu ta ots aundiarekin lur gañian uzten du)

Bat eta batere ez. Ez nuen bada nik orretarako atxua artu. Guazen bestiarekin. Uu...up

(Beste oinetakoa lengua bezela lur gañian uzten du)

Orain, atxua etortzian, biyak sudur gañera botako dizkiot. ¡A zer kankarrekoa!

(Andre Mañaxi erratzarekin sartzen da)

Andre Mañaxi: ¡Nere gixontxua etorri al da?

Trinpolla: ¿Etorri naizen? Orain botako dizut *partia*. Ara: sudur kankarrian artuko dezu

(Oñetako bat botatzen dio)

Andre Mañaxi: ¡E! ¡Ori re badegu!

Trinpolla: Bai; ta ara bestia

(Beste oñetako bat botatzen dio)

Andre Mañaxi: Orain ikusiko dezu

Trinpolla: ¿E?

Andre Mañaxi: Bat, bi, iru, lau. Kaxka, kaxka, kaxka.

(Erratzarekin Trinpolla jotzen du)

Trinpolla: ¿Zer? ¿Neri ori egin?

Andre Mañaxi: Zuri, bai, zuri. Kaxka, kaxka, kaxka.

(Berrito jotzen du)

Trinpolla: Nik emango dizkiñak ederrak

(Trinpolla juaten asten da. Mañaxik atzetik jotzen du)

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka.

(Trinpolla juaten da)

Buru kankarra berotu diodala uste det. “Estraktus makillorun per omnia sekula sekulorun” sendagai egokia dala derizkiot.

(Trinpolla makil sendo batekin etortzen da, ta Andre Mañaxi 'ri makilka ekiten dio)

Trinpolla: Orain ikusiko den. To, to, to

(Mañaxik ere erratzarekin jotzen du)

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka

(Alkarri erasotzen diote. Sendagillea etorri ta biyen artian sartzen da)

Sendagillea: ¡Egongo al zerate geldirik! ¿Au al da senar emazteen arteko jarduna?

Trinpolla: Ez; beste au da: to, to, to

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka

(Senar emazteak sendagillea ebain ebain egiten dute. Au ateratzen da)

Sendagillea: ¡Geldirik!

(Une honetan txakurra azaltzen da)

Txakurra: ¡Txau, txau, txau!

Trinpolla: *(Txakurra ´ri)*

Ua emendik ijito ume arlotia

Andre Mañaxi: ¡Utikan!

(Senar emaztiak makillazoka txakurra uxiatzen dute. Txakurra juaten da)

Sendagillea: ¿Ni bezelako sendagille bati ori egiten al zaio?

Trinpolla: Ori, ura ta ... au: to, to, to

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka

(Senar emaztiak berriro Sendagillea jotzen dute. Au ateratzen da)

Sendagillea: ¡E! Nik jakingo det zer egin

(Txakurra azaltzen da berriro)

Txakurra: ¡Txau, txau, txau!

Trinpolla: *(Txakurra ´ri)*: Mutur zikin alena: ua hemendik

Andre Mañaxi: Utikan

(Senar emaztiak makillazoka txakurra uxiatzen dute. Txakurra juaten da)

Sendagillea: Mikelete batekin etorriko naiz; ta biyak espetxera eramango zaituzte

Andre Mañaxi: Etorri zaite nai badezu Olentzarokin ere

Trinpolla: To, to, to

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka

Sendagillea: Etorriko naiz bai, etorriko naiz

(Sendagillea juaten da. Juateakoan senar emaztiak atzetik jotzen dute)

Andre Mañaxi: ¿Ikusi al dezu, lotsagabe ori senar emaztien tartian sartzera nola etorri zaigun?

Trinpolla: Gu bezelako senar emazte maitatiak

Andre Mañaxi: Kuttunak

Trinpolla: Laztanak

Andre Mañaxi: ¡Potxolo!

Trinpolla: ¡Moñoña!

Andre Mañaxi: ¡Uxotxo!

Trinpolla: ¡Pinpilinpauxa!

Andre Mañaxi: ¿Dantza bat egingo al degu?

Trinpolla: Bai, ta pozik

(Biyak dantzatzzen dira)

Biyak: *(Abestuaz)*

Andre Madalen

andre Madalen

laurden erdi bat oliyo

aitak jornalak ekarrizian

amak ¡miau! egingo diyo

Irugarren irudia

III

Trinpolla, Andre Mañaxi, Sendagilea ta Mikeletia

(Sendagillea Mikeletia ondotik duela sartzen da)

Sendagillea: Abetxek dira

Mikeletia: ¿Karramarro abek al dira?

Trinpolla: (Karramarruak deitu digula uste det! A zer kankarrekua!)

Sendagillea: Alkarri makillazoka aritu dira

Mikeletia: ¿Alkarri?

Sendagillea: Ta ez ori bakarrik. Neri ere bai

Mikeletia: ¿Zuri ere bai?

(Mikeletia senar-emaztien tartian sartzen da)

Mikeletia: ¡Burruun! Egin dezuten txarkeria gatik neri ordaindu biarko didazute. ¡Burruun! Azkar gero

Trinpolla: Beriala ordainduko dizugu

Andre Mañaxi: Berialaxe

Trinpolla: Ara; to, to, to

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka

(Mikeletia jotzera egiten dute baña onek burua jexten du, ta makillazuak senar emaztiak artzen dituzte)

Trinpolla: Ai, au kinkiñazua

Andre Mañaxi: Au buru kankarrekoa

Mikeletia: Ausartak ez besterenak ¡Burruun!

Mikeletia: Ni zein naizen orain ikusiko dezute ¡Burruun!

Trinpolla: Orain ikusiko diagu bai. To, to, to

Andre Mañaxi: Kaxka, kaxka, kaxka

(Len bezela Mikeletia jo nairik asten dira, baña onek burua makurtzen du ta makillazuak senar emaztiak artzen dituzte)

Trinpolla: Ai! burua ebaki dit

Andre Mañaxi: Ai! muñak xalmueran jarri dizkit

Mikeletia: ¿Zer uste zenuten ba? ¡Burruun!

Trinpolla: *(Mikeleteari)*

Baña, zaude; zu Zizurkil'go Antton Miel Enplasto'ren semia zera

Andre Mañaxi: Eta Mikela Inaxi Titare'ren suya

Sendagillea: Eta Anbroxio txikiatzalliaren lengusua

Trinpolla: Len esan bazenu

Andre Mañaxi: Nun egon gera gu

Sendagillea: Jakin izan banu

(Irurak Mikeletia besarkatzen dute)

Mikeletia: Ni naiz bai ori guziya

Trinpolla: Orduan ez dago zer esanik. Emengo zalapartak amaitu dira. Kaska-gogorra bukatu da, ta orain guztiyak dantza aldi bat egin biar degu

Andre Mañaxi: Ederki esana

Sendagillea: ¡Aufa!

Mikeletia: ¡Iyup!

(Labak abestuaz dantzatzen dira)

Labak: Baratzako pikuak
iru txorten ditu
neska mutil zaliak
makarra ezin kendu

Zapia

AMAYA
